

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2013

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak EA Eren Administrazio Orokorraren 2013ko ekitaldiaren kontuaren fiskalizazio lana mamitu du, epaitegia arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari jarraiki. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako batek boto partikular konkurrizailerik egin du.

Fiskalizazio-lanak kontuak egitean erabilitako kontularitzako printzipioen azterketa eta 2013ko urtean zehar administrazioaren aribidean legezko arautegia bete izanaren azterketa besarkatu du.

Legea betetzeari dagokion atalean, erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du EA Eren Administrazio Orokorrak legezko arautegia betetzeari dagokionez; alabaina, hainbat salbuespen jaso ditu.

Honela, bada, ez da aurrekontuko luzapenaren araubidea bete, izan ere, ordainketako hasierako kreditu modura 107,1 milioi euro inguruko zenbatekoa jaso da, hainbat kapitulutako gastu kredituei dagozkienak.

Halaber, administrazioko kontratazioari dagokionez, besteak beste, Gobernu Kontseiluak arautegian finkatutako salbuespenezko prozedurari jarraiki, obra-kontratu, hornidura eta zerbitzuak eta bestelakoak kontzeptuan 54,5 milioi euro baliokidetu dituela azpimarratu da, aurrez Ekonomia Kontrolerako Bulegoak kontrako txostena jaulkia zuela. Hona hemen ez-betetze nagusienak: publikotasun eta lehia printzipioak ez betetzea eta epea iraungi ondoren zerbitzua ematen jarraitzea.

Diru-laguntzei dagokienez, guztira 12 milioi euro eman dira zuzeneko diru-laguntzetan, indarreko arautegiak agintzen duen apartekotasun eta/edo deialdi publikoa deitzeko apartekotasuna edo ezintasuna justifikatu gabe.

Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak aurkeztutako Kontuari dagokionez, Epaitegiak uste du alderdi esanguratsu guztietan erakusten duela 2013ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa; salbuespen bakarra Oroitidazkian abenduko aparteko

ordainsariaren zenbatekoak, 92,7 milioi euro, zituen erabilgarritasun mugaketez ez informatu izana da, 20/2012 Errege Dekretu-Legea betez ordaindu ez zena.

Barne Kontrolerako Sistemai eta Kudeaketa Alderdiei buruzko Irizpenen atalean administrazioaren jardueri dagozkien beste alderdi batzuk barne hartu dira, hala nola, aurrekontuak eta kontabilitatea, langileria, kontratazioa, diru-laguntzak e.a. HKEEK hobetu edo zuzentzeko gai direla irizten dienak.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEK 2010-2013 aldian honekin lotutako parametro guztien bilakaera xehetasunez jaso du, hots, diru-bilketa, jasotako transferentziak, gastuak, aurrezki gordina, diruzaintza geldikin erabilgarria, erabilitako zorra, e.a; berebat, aurrekontu egonkortasunari buruzko hainbat irizpen egin ditu.

Azkenik esan behar da EA Eren Administrazio orokorrak "HIRIKO" proiektuari emandako laguntza eta diru-laguntzen analisisa jasotzen duen berriazko atala jaso dela. Laguntza horiek nagusiki 2010, 2011 eta 2012ko deialdi publikoen eta Etorgai Programaren bitartez eman dira. Atalak Programaren araudi erregulatzaileria azaltzen du, emandako diru-laguntzak zehazten eta azkenik, laguntzak eman eta egikaritzeko prozesuari dagokionez HKEEren ondorioak deskribatzen ditu.